

# Ahots-Joskera: Arau Bertikalak

GARAI KLASIKOAN MUSIKA NOLA KONPOSATZEN ZUTEN HOBETO ULERTZEKO GUK GEUK KONPOSATUKO DUGU MUSIKA, BERAIEI ESTILOA ERABILIZ.

BERAIEI MUSIKAN IKUSTEN DITUGUN PATROIAK, **EGITEN** ZITUZTEN GAUZAK EDO **EGITEN EZ** ZITUZTENAK, "**ARAUAK**" BIHURTUKO DIRA GURETZAT.

GARAI HORRETAKO KONPOSITOREEK **EZ** ZITUZTEN "ARAU" BEZALA IKUSTEN... BERAIENTZAT **GUSTOKO SOINUA** ZUELAKO IDAZTEN ZUTEN HORRELA.

HORRETAZ GAIN, EZ GENITUZKE ERABILI BEHAR ARAU HAIEK MUSIKA **OROKORREAN** KONPOSATZEKO... ESTILO BAKOITZAK BERE PATROI **PROPIOAK** DITU; BERE "**GIDALIBURU**" PROPIOA. KONPOSITORE BEZALA, **ZEURE ARAUAK** IZAN BEHARKO ZENITUZKE **ZEURE ESTILOA** ERAIKITZEKO!

**ARAU BERTIKALEKIN** HASIKO GARA... HAU DA, **LAU AHOTSEKO HARMONIAN AKORDE** BAKAR BAT ERAIKITZEA AHALBIDETZEN DUTENAK.

LEHENIK ETA BEHIN, **SOPRANOTIK ALTURAKO** DISTANTZIA, ETA **ALTUTIK TENORRERAKOA** ZORTZIDUN BAT EDO **GUTXIAGOKOA** IZAN BEHAR DA.

TENORRA ETA BAXUA **NAHI BESTE HURRUNDU** DAITEZKE!

BIGARRENIK, AHOTSEK **ORDENA MANTENDU** BEHAR DUTE; ADIBIDEZ **TENORRA** EZ LITZATEKE **ALTUA** BAINO **GORAGO** EGON BEHARKO. (BACH-EK NOIZBEHINKA ARAU HAU APURTZEN ZUEN, **MELODIA BEREZIEI BAT LORTU** NAHI ZUENEAN EDO.)

HIRUGARRENIK, **TRIADA HIRU NOTAZ** OSATURIK DAGOENEZ BAINA GUT **LAU AHOTS** DITUGUNEZ, NOTETARIKO BAT **BIKOIZTU** EGIN BEHAR DA. **OINARRIZKO ANTOLAERAN** DAUDEN TRIADETAN **OINARRI-NOTA** DA BIKOIZTEN DENA, GAINONTZEKO ARAUEK BESTELAKOA EGITERA BEHARTU EZIK.

AZKENIK, AHOTS BAKOITZAK BERE **HEDADURA** DU. **GAUR EGUNGO ABESLARIENTZAT** NAHIKO HEDADURA **KONTSERBADOREAK** DIRA, BAINA KONTUAN IZAN BACH-EN KORALAK **LEIPZIG-EKO ELIZARA** ZIOAN **JENDE ARRUNTARENTZAT** IDATZI ZIRELA!

